



ZAHARTZE AKTIBOAREN ESTRATEGIA 2015-2020 RAKO

Jaiotza-tasaren jaitsierak eta bizi-itxaropena luzatzeak, osasuna hobetzearekin eta ohitura osasuntsuak zabaltzearekin batera, eragin dute pertsona nagusien kopurua handitzea, eta horren ondorioz, herritarren zahartze prozesua XXI. mendearren erronketako bat bihurtu da herrialde garatuetan. Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 2029an EAEn 65 urtetik gorako 596.000 lagun egongo dira. Horrelakoak guztien ia heren bat izango dira (% 29). Ia milioi bat izango dira 55 urte edo gehiagoko pertsonak, EAEko biztanleen ia erdia. Angel Toña, Gizarte Politiketako sailburuaren hitzetan, "gaur egun EAEko hiru biztanletatik bat 55 urtetik gorakoa da. Biztanleriari buruzko proiektzioaren arabera, datozen urteetan gizartea pixkanaka zahartuko da. Bizitza osorako zeregina da ongi zahartzea, eta erantzukizun pertsonal eta kolektiboa eskatzen du". EUSTATEN datuen arabera, Getxon tendentzia demografikoa Euskadin baino zaharragoa da, gaur

egun 60 urtetik gorako 23.674 pertsona daudelako (%30).

Helburua eta arloak

2015-2020rako Estrategiak zahartze aktibo, positibo eta osasuntsua lortzea du helburu, pertsona horiek herrialde, lurralde, hiri edo herriaren garapenean integratua egon daitezen. Estrategiaren lau oinarriak dira duintasuna, autonomia, parte-hartzea eta erantzukidetasuna eta hurrengo hiru arlo handitan egituratuta dago:

- 1.- Gizartea zahartzera egokitzea
- 2.- Aurrerapena eta prebentzioa hobeto zahartzeko
- 3.- Adiskidetasunezko jarrera eta parte-hartzea ongizatearen gizartea eraikitzeko garaian

Euskadin gizartearen eta antolamenduaren aldaketa sustatzea bilatzen du lehen arloak, bai politika publikoen esparruan bai pribatutasunean. Hartarako, honelako ekintzak bultzatuko dira: adinekoen eskubideak bermatzea

eta bereizkeriaren aurka borrokatzea, adinekoen segurtasuna eta gizarteratzea bermatzea, eta zahartzearen inguruko garapen ekonomikoa sustatzea, enplegua sortzeko iturri gisa eta adinekoen aldetik kontsumo berriak ere egon daitezkeelako.

Hobeto zahartzeko aurrerapenaren eta prebentzioaren arloak, berriz, zeharkako prebentzio-politiken bitartez adinekoen autonomia eta independentzia sustatu nahi ditu. Hori horrela, xede hauek dituzten ekintzak bultzatuko dira: bizitzan zehar erabakiak modu arduratsu eta orientatu batez hartzea bultzatzea, pertsonen autonomia sustatuz zahartze aktiboa lortzea; lan-bizitzatik erretirara arteko trantsizio positiboa sustatzea; etxebizitza eta etxeko ingurunea prestatzea bizitza osoan horretaz gozatu ahal izateta; zahartze osasuntsua sustatzea, eta bizitzan zeharreko ikaskuntza erantsatea euskal gizartearen.

Azkenik, adiskidetasunezko jarrera eta parte-hartzea ongizatearen gizar-

tearen eraikuntzan izeneko atalean adiskidetasunezko paradigma Euskadin orokortzea sustatzeko ekintzak bultzatuko dira, adinekoek prozesu horretan protagonismoa eta parte-hartzea izatea bermatzearen. Horrekin adinekoen artean ekintza boluntarioak eta komunitateko lankidetzak mugimenduak ugartzatzea bultzatu nahi da, eta baita adinekoek familia-esparruan emandako zaintzen eta laguntzen transferentzia baloratzea, eta Euskadin adiskidetasunezko prozesuak bultzatzea ere.

Eusko Jaurlaritzak, lurralde- eta udal-administrazioekin elkarlanean, longebitatearen iraultzaren erronkari aurre egiten nahio dio, uste baitu elkarrekin gizarte adeitsuagoaren eraikuntzan aurrera egin dezakeela, gizartearen zahartze aktiboa laguntzeko. Helburu nagusia da adinekoak bizi-baldintza onenetan bizi ahal izatea; ahalik eta denbora luzeenean mendetasun-egoerarik gabe.

ALKATEA UDALERRIKO PERTSONA NAGUSIEN ELKARTEETAKO PRESIDENTEETAKIN BILDU DA

Imanol Landa alkatea, eta Elena Coria, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia, urriaren 1ean, Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunean (Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1990ean ezarritakoa) udalerriko pertsona nagusien hiru elkarteetako presidentekin bildu ziren udaletxean.

Alkateak Jose Miguel Fernández de Martikoenari, Juanjo Quiñonesi eta Carlos Hernandori, Ibar Nagusien Etxea, Urte Alaiak eta AJANE, elkarteetako buruei igorri zien beraiekin lan egiten eta laguntzen segitzeko asmoa, eta aldi berean, zoriondu eta eskertu zien beraien lana, batzuetan kontuan hartzen ez dena eta 7.000 bat lagun erakartzen dituen.

Bileran elkarteek datozen lau urteotarako dituzten aurreikuspenak entzuteaz gain, Alkatea pertsona nagusiei dagokienez aurrera eramango den lan-ildoaz mintzatu zitzairen, hain zuzen ere, Legegintzaldi Planean bere isla izango duenaz.

Aipatutako elkarteek astirako, osasun, eta kulturari lotutako jarduerak eta ikastaro ugari antolatzen dituzte, beren Romoko, Andra Mariko eta Algortako egoitzak kudeatzearekin batera.



ZER GARA?

1987ko azaroaren 21ean sortuta, adinduen ongizate kolektiboa hobetzea helburu duen elkarte, eta hori lortzeko adinduen bizi-kalitatea areagotzen saiatzen dena, zahartze aktiboa sustatzea oinarri hartuta.

ZER EGITEN DUGU?

Jarduera ugari: ibilaldiak, abesbatza, gimnasia, lehiaketak, kultur-txangoak, jaialdiak, dantzaldia, bingoa eta ikastaro ugari. Hori guztia adinduek denbora librean sorkuntza- eta partaidetza-giroan bizi dezaten.

Halaber, adinduentzat ongizatea bermatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko funtsezkoak diren hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu, besteak beste: taberna-jantokia, emakume eta gizonentzako ile-apainketak, podologia eta masaje terapeutikoa.

Bazkide izateko nahikoa da 60 urtetik gorakoa izatea eta Getxon erroldatuta egotea. Bazkide izateko eskubidea dutenen senar, emazte edo bikotekideak ere izan daitezke bazkide, baina %33ko minusbaliotasuna eta 50 urte baino gehiago dauzkatenak ere.

NON GAUDE?

Romoko Nagusien Etxean, Lope de Vega kaleko 12an.

Harremanetan jartzeko: 944 660 150 telefono-zenbakira deitu edo ibarnagusi@gmail.com helbide elektronikora idatzi.



ZER GARA?

Adinduen garapen integrala helburu duen elkarte, 1995eko azaroaren 22an sortuta. Asmoa da topaleku izatea eta adinduen bizi-kalitatea hobetzea, dauzkaten premia espezifikoetan lagunduz.

ZER EGITEN DUGU?

Askotariko jarduerak, esate batera: tai ji, yoga, pintura, oroimena suspertzeko ariketak, bingoa, karta-txapelketak eta rummy; baita kultur-txangoak eta jaialdiak ere.

Bazkide izateko 60 urte eduki behar dira, gutxienez, eta bazkide direnen bikotekideak ere harpidetu daitezke.

NON GAUDE?

Andra Mariko Orduñako portua kaleko 16an.

Harremanetan jartzeko: 944 062 427 telefono-zenbakira deitu edo Urtealaiak@gmail.com helbide elektronikora idatzi.



ZER GARA?

Elkarte gazte bat, 2013ko martxoaren 18an sortuta, eta helburua adinduen lankidetzeta eta partaidetza erraztea da, eta horretarako, haiekin bizitzeko eta denbora librerako jarduerak biziak antolatzea.

ZER EGITEN DUGU?

Askotariko jarduerak: ibilaldiak, gorputza zaintzeko gimnasia, lehiaketak, kultur-txangoak, jaialdiak, urritik ekainerako igandeetan dantzaldiak, hitzaldiak eta ikastaro ugari. Hori guztia bazkideen interesetan oinarrituta eta jarduerak sortzaileak eta partizipatiboak izan behar dutela kontuan hartuta.

Edonor izan daiteke elkarte kide, baldintza hauetakoren bat betez gero:

- 55 urtetik gorakoa izatea.
- Erretiratua, aurretik erretiratua edo pentsioduna izatea.
- Senar, emazte edo bikotekideak baldintza horietakoren bat betetzea.

NON GAUDE?

Udal egoitza batean, Algortako Juan Bautista Zabala kaleko 3an.

Harremanetan jartzeko: 609 008 342 telefono-zenbakira deitu edo asociacionajane@hotmail.com helbide elektronikora idatzi.